

KOSTU EGITURA

Gure produkzioa Kongon egingo da bertan baliabideak eskuratzea Euskal Herrian baino merkeagoa delako eta gure hasierako helburua produktuen kostua minimizatzea da. Fabrika bat eraikiko dugu eta bertako gobernuarekin hitz egin eta adostu ondoren lur eremu bat erosiko dugu kostu finkoa izango duena. Fabrika eraikitze materialak hasiera batean bertatik eskuratuko ditugu eta fabrika eraikiko dutenak bertako langileak izango dira kualifikazio minimo bat dutenak segurtasuna egiaztatzeko.

Produktuari begira hauek eraikitze materialak ere bertatik eskuratuko ditugu merkeagoa izateko. Hasiera batean 20€ko kostu finkoa izango du produktua egitea baina kostu hau aldatu daiteke produktuak izango duen arrakastaren arabera, izan ere, gure produktuaren demanda igo egiten baldin bada baliabideak gutxituko dira eta hoiaren prezioak igo egingo dira.

Salmentari dagokionez, hasiera batean 100€ko kostu finkoa izango du produktuak, baina lehen aipatu dudan bezala kostu hau aldatu daiteke gure produktuak daukan demandaren arabera.

